

II. Argazki Lehiaketa Udazkena Euskal Herrian. Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso elkartearen (ASPANOGI) aldeko lehiaketa.

ArtGazki argazki taldeak eta Arrasateko udaletxearen laguntzarekin antolatuta.

GAIA: Udazkena Euskal Herrian, bai mendi edota hiri paisaia.

IZEN-EMATEA: DOHAINEZKOA eta irekia. ArtGazki elkarteko edozein kidek hartu dezake parte baita zuzendaritzako kidea izanik, beti ere, epaimahaian parte hartzen ez badu.

TEKNIKA, FORMATOA ETA ARGAZKI KOPURUA:

Argazkiak koloretan edota txuri-beltzean izan daitezke.

Ezin izango dira inolako oinarrietan muntatu, ezta kiribilduta aurkeztu. Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utziko ditu manipulaturik egon daitekeen edozein argazki (elementu bisualak gehitu, kendu edota mugitzen badira). Ez dira onartuko formatu originala aldatu dezaketen moztutako argazkiak.

Gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango dira, 72 ppp-ko bereizmenarekin eta 1440 pixel (50 zm.) argazkiaren alde luzeenean.

Argazkiak aukeratuak izaten badira, antolatzaileek argazki originalak eskatuko dituzte. Beraz, gomendagarria da egileak aurkezten dituen argazki originalak bere kalitate osoan gordetzea (250 ppp eta 50 zm. argazkiaren alde luzeenean).

Argazkiak helbide honetara bidali behar dira: lehiaketak@artgazki.org, 2016ko azaroak 20ko gaueko 12ak baino lehenago.

Argazkiekin batera beste datu hauek bidali behar dira: Egilearen izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefono zenbakia, argazki bakoitzaren izenburua eta argazkia atera den lekuaren izena.

Egileak aurkeztutako argazkien egile bezala aitortuko dira. Aurkeztutako argazkietan ezingo da egilearen izena edota bere logotipo pertsonalik jarri.

Ezingo dira beste lehiaketa batzuetan parte hartutako argazkiak aurkeztu.

ARGAZKIEN AUKERAKETA ETA EPAIA:

Epaimahaia ArtGazki argazki taldeak izendatuko du eta aukeratutako pertsonak adituak izango dira argazkigintzan eta arte lanetan. Epaimahaiak kontutan izango ditu lanen originaltasuna, erabilitako teknika, argazkiaren estetika edota argazkilariak izandako sormen maila. Lanaren epaia apelaezina izango da.

Epaimahaiak eskubidea izango du oinarri hauek betetzen ez duen edozein lan alde batera uzteko. Baita lehiaketatik kanpo uzteko gustu txarreko edota argazki erasotzaileak.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe utzi dezake horrela balegokio.

Argazki onenak Arrasateko hainbat komertziotan erakutsiko dira erakusketa baten bidez. Ondoren, erakusketa bat montatuko da Kulturateko erakusgelan. Argazkien inprimaketa eta markogintza ArtGazki argazki taldearen esku izango dira.

Erakusketa desberdinak egin eta gero, argazkiak salmentan jarriko dira. Bertan lortutako irabaziak ASPANOGI-ri (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte) emango zaizkio.

ESKUBIDEAK:

Aurkeztutako lanak ArtGazki taldearen eskuetan geratuko dira, bai erakusketa eta dibulgazio lanetan hainbat euskarrietan editatu ahal izango dituelarik, beti ere egilearen izena aipatuz.

Antolatzaileek lehiaketan aurkeztutako argazkiak Arrasateko udaletxeari eta ASPANOGI elkarteari utzi diezaiekete. Hauek ezingo die beste hirugarren bati argazkiak utzi egileen baimena izan gabe.

Lehiaketan parte hartzeak oinarrien onarpena adierazten du.

SARIAK

1. Garaikurra eta 300 euro
2. Garaikurra eta 200 euro
3. Garaikurra eta 100 euro

Ikusleen saria: Bazkaria edo afaria bi pertsonentzat.